

«Saiakera itzultzeaz» solasaldia

AMAIA ASTOBIZA, MAIALEN BERASATEGI, OLATZ ESTEBAN, DANELE SARRIUGARTE

2021eko irailaren 25ean, Amaia Astobizak, Maialen Berasategik eta Olatz Estebanek «Saiakera itzultzeaz» solasaldian parte hartu zuten, Danele Sarriugarteren gidaritzapean, Literaturiak eta EIZIEk antolaturik. Orriotara ekarri nahi izan ditugu han bildutako hitzak.

DANELE SARRIUGARTE: Euskarara itzultitako saiakerari buruzko mahai-ingurua da hau, EIZIEk eta Literaturiak lankidetzan antolatua. Saiakeraren itzulpenari buruz hitz egiteko elkartu gara hemen, eta gonbidatuak aurkeztuko dizkizuet, ezer baino lehen.

Ezker muturrean, Amaia Astobiza Uriarte dugu. Kimikako oinarrizko ikasketak egin ostean, Elhuyarren hasi zen lanean, 1999an, eta orduz geroztik han jarraitzen du. Hango lanari erantzuteko, Itzulpengintzako eta Interpretazioko ikasketak ere egin zituen, eta emakume eta gizonen berdintasunari buruzko masterra ere bai. Horrek, gero, izan du jarraipenik beraren ibilbidean. Besteak beste, Silvia Federiciren hiru liburu itzuli dituelako gonbidatu dugu gaur (laster argitaratuko da beste bat). Nick Estesen saiakera liburu bat ere itzuli zuen, iaz.

Hurrena, Olatz Esteban Ezkati dugu. Itzulpengintzako eta Interpretazioko gradua ikasi du, eta, besteak beste, *Berria* egunkarian aritu da kazetari. Gaurkoan, saiakerak euskal itzulpengintzan izan duen presentziari buruzko azterlan bat egin duelako gonbidatu dugu. Gero datu batzuk erakutsiko ditugu, baina, bestela, *Senez* aldizkarian ere badago haren lanaren lagin bat.¹ Gaur aipatuko ditugun datu batzuk sakonago ezagutu nahi badituzue, hortxe daukazue aukera.

Eta, azkenik, hemen, nire ondo- ondoan, Maialen Berasategi Catalán. Bera ere Itzulpengintzako eta Interpretazioko lizentziaduna da, eta gaur egun itzultzailea eta zuzentzailea *Berria* egunkarian. Hainbat itzulpen egin ditu narratibaren arloan, baina baita saiakeraren arloan ere. Adibidez, Adrienne Richen *Emakumeagandik jaiok* eta Carole

1. <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/senez-52-2021/saiakera-euskal-itzulpengintzan-erradiografia-bat>

Patemanen *Kontratu sexuala*. Eta poema-liburu bat ere argitaratu du aurten, bide batez esanda.

Ni Danele Sarriguarte naiz. EIZIEkoek eskatu zidaten solasaldi hau antolatzeko, eta hementxe nago.

Gehiago luzatu gabe, galdera orokor batzuekin hasi nahi nuke. Galdetu nahi dizuet saiakerarekin eta saiakeraren itzulpenarekin zer harreman daukazuen, eta, zu, Olatz, zer-gatik animatu zinen gai hori aztertzeraz.

AMAIA ASTOBIZA: 2017an hasi nintzen Federiciren liburuak itzultzen. Beno, liburu bat itzuli nuen. Ez nekien gero beste batzuk etorriko zirela. Urte horretan, Federici Euskal Herrira etorri zen, eta, besteak beste, Katakraken egon zen, eta Katakrakeko jendearekin Zugarramurdiko kobazuloak ikusten eta hori guztia. Nik, urte horretan, emakumeen hainbat biografia sartu nituen Wikipedian, tartean Federicirena, eta, horretarako dokumentatzen ari nintzela, Federiciri irratian egindako elkarrizketa bat aurkitu nuen. Oso interesgarria iruditu zitzaidan, euskarara ekarri nuen, eta Katakraken blogean argitaratu zuten. Gustatu-edo egin zitzaizen, zeren gero proposatu zidaten Federiciren liburu hura nik itzultzea, eta hortik hasi nintzen. Orditik, Federiciren beste bi, eta laugarrena bidean da. Gero, Danelerekin batera itzuli nuena, Nick Estesena. Hori izan da nire ibilbidea.

OLATZ ESTEBAN: Gradu amaierako lanerako gaia aukeratzean, ez nuen garbi izan saiakera jorratzea. Hasieran, Isabel Etxeberriarekin batera hasi nintzen begiratzen ea zer gai jorra nezakeen. Banuen asmoa hizkuntza gutxituen arteko itzulpen-lanak aztertzea,

eta Isabelek literatura itzuliaren inbentarioak aipatu zizkidan –lehenik Manu Lopez Gasenik eta gero Iñigo Satrustegik osatuak, genero guztiak kontuan hartuta–, eta interesgarria izan zitekeela genero zehatzago bat jorratzea.

Beste ikasle batek poesia landu zuen gradu-amaierako lanean. Beraz, antzerkia, haur- eta gazte-literatura eta saiakera izan zitezkeen beste aukera batzuk. Saiakerarenak atentzioa eman zidan. Ikusten nuen bai ni bai nire ingurukoak asko ari ginela hitz egiten saiakera-lan batzuen inguruan. Garai horretan saiakera-lan asko ari ziren itzultzen euskarara, feminismotik. Beauvoirren *Bigarren sexua*, adibidez. Hor ziren *Caliban eta sorgina* eta *King Kong teoria* ere. Gainera, garai horretan atera zuen Kattalin Minerrek «Munduko feminismoa, euskarari emana» artikulua ere, Hitzen Uberanen, eta hor bide bat ikusi genuen. Bazegoen pertzepzio bat saiakera nahiko presente zegoela euskal literaturan, eta hortik abiatuta dator lana, kuriositate horretatik heldu genion gaiari.

MAIALEN BERASATEGI: Nire kasua pixka bat kurioa izan daiteke. Alde batetik, nire lehenengo itzulpena talde-lanean egin nuelako. Walter Benjaminen antologia bat ekarri genuen euskarara hainbat pertsonaren artean, bakoitzak atal bat-edo itzulita. Eta bigarren kasuan ere bai: Monique Wittigen *Pentsamendu heterozuzena* zortzi eskutara itzuli genuen –Danele tartean–. Hirugarrenean etorri zen azkenean salto handia-edo, *Kontratu sexuala*, bakarkako lehenengo saiakera. Gero, berriz, Richena, aipatu duzun hori. Eta oraintxe entregatu berri dugu beste bat, zortzi eskutara itzulia, Nancy Fraser-en

liburu polit bat, aurki Lisipen aterako dena. Horixe da nire ibilbidea. Egia esan, ez da oso luzea, baina hementxe nago.

DANELE: Olatz, zuk aipatu duzunari helduta, zure lanean diozu azkenaldian ustea zabaldu dela saiakera sekula ez bezala ekartzen ari dela euskarara, baina hori hein batean dela egia. Niri bukaerako nabardura hori interesatzen zait. Hain justu ere, zure lanean aipatzen duzu saiakeraren itzulpenean bi aro daudela; lehenengo aroa «bildumen aroa» izango litzateke, 1990etik 2000ko hamarkadara doana, eta gero «argialetxe txikien aroa», 2010etik aurrera doana.

Esango nuke bai Maialen eta bai Amaia bigarren aro horretan aritu zaretela, eta ni neu ere bai. Baina nahi nuke saiakeraren itzulpena ez geratzea bukaerako argazki horretan bakarrik, eta bi aroei buruzko ezaugarri nagusiak azaltzea.

OLATZ: Pixka bat kokatzeko... Lan honetan, saiakeraren itzulpengintza bere osotasunean aztertu dugu. Lehenengo lana 1913an jasotzen da, eta bakarra da. Gero, 1970eko hamarkadan ere, egin ziren itzulpen batzuk, solteak. Esan daiteke sistematikoki-edo 1990eko hamarkadan hasi zirela saiakera euskarara itzultzen. Ondoren, 2019a bitarteko garaia aztertu dugu.

Azterketaren grafikoan ikusten da 2019a bitartean zenbat saiakera-lan itzuli diren, eta nolakoa izan den joera. Zuk aipatu duzun bezala, guk bi bloke bereizi ditugu. Alde batetik, bilduma handien garaia: gutxi gorabehera, 1990. urtetik 2009-2010.era, tarte horretan. Hori izan da saiakera gehien itzuli den garaia. Grafikoan ikusten da urte batzuetan 19 lan itzuli direla, eta 25era ere

iritzi zirela. Egia esan, asko ekarri zen euskarara garai horretan. Bilduma batzuk sortu ziren. Handiena edo garrantzitsuen Pentsemenduaren Klasikoak da. 1992 eta 2009 bitartean ibili ziren lanak euskarara ekartzen. EHUren, Deustuko Unibertsitatearen eta zenbait aurrezki kutxaren egitasmoa izan zen. Bilduma horretan jasotzen diren lanak filosofia-testuak eta zientziara bideratutako lanak dira gehienbat. Gaiak argialetxeak ere itzuli zituen lan batzuk, hiru bildumatan: 88 lan, denak ere oso lotuak historiari, zientziari, pentsemendu garaikideari. EHUk ere bi bilduma ditu, eta Elhuyar ere ibili da saiakerak itzultzen.

EHUUn, ZIO bildumak jarraipena izan du, eta Elhuyarrena ere pixka bat luzatu zen, baina gehienbat 1990-2000 urteetan itzuli zituzten lanak, eta bat-batean asko igo zen produkzioa. Guk Pentsemenduaren Klasikoak bilduma aztertu dugu gehienbat —historian garrantzitsuak izan diren pentsalarien testuak biltzeko sortua—, eta, pixka bat sakonago ikertzen hasita, ikusi dugu gehienak mendebaldeko testuak direla, zuriak idatzitakoak eta, gehienak, gizonek. 131 lan horietatik, lau emakumeren lanak bakarrik jasotzen dira, eta deigarria da, zeren lau lan horiek 2008-2009an argitaratu ziren, bildumaren amaiera-amaieran.

Garaia dagokionez ere, oso testu klasikoak dira. Erdiak baino gehiago XX. mendearen aurreko testuak dira, eta beste % 40 inguru XX. mendekoak. Oso gutxi dira XXI. mendekoak. Egia da 2009 bitartean argitaratu zirela, eta ez zuen askorako ematen, baina ez dira oso testu garaikideak. Nahiko hegemonikoak eta kanonikoak dira. Filosofo klasikoak —Aristoteles, Platon...—,

pentsalariak ere bai –Karl Marx...–, izen potoiloak, baina nahiko hegemonikoak eta kanonikoak.

Itzultzaileen jarduna ikusita, emakumezkoak ere aritu ziren itzultzen, baina nahiko gutxi izan ziren: lanen % 27 itzuli zituzten emakumeek.

2010etik aurrera, aldaketa bat egon zen. Hamarkadaren bukaera aldera-edo, bilduma handiak ixten joan ziren, eta argitaletxeek edo fundazioek hartu zuten lekukoa, saiakera itzultzeko ardura. Eta hor aztertu dugu nolakoa izan den bilakaera. Hasieran, lan bat edo bi itzultzen ziren, eta 2010etik aurrera urtean zazpi lan, sei, bost... Batez ere 2016tik aurrera ikusten da aldaketa, eta ez da kasualitatea. 2016an, Katakarak argitaletxea sortu zen, ideiak astintzeko-edo asmoarekin; saiakera da gehien argitaratzen duten generoa, eta lan gehienak itzulpenak dira.

Beraz, hasi zenetik guk azterketa jaso dugun urtera arte –2019ra arte–, esaterako, 11 lan argitaratu zituen argitaletxe horrek. 2016an, Eskafandra bilduma sortu zuten Elkar eta Jakin argitaletxeek, pentsamendu feminista euskarara ekartzeko helburuarekin. Hor, saiakeraren jarduna erreaktibatu egin zen; beste arlo batetik, baina zenbakiak ere goraka hasi ziren. Aldaketa bat gertatu zen edukien aldetik, eta perfila ere guztiz desberdina zen. Gehienak XX. mendekoak dira, testuen erdiak-edo, eta beste % 34 XXI. mendekoak, oso testu garaikideak; asko pentsamendu feministari lotuak, eta beste asko gai politiko eta sozialei, eta gaurkotasun handia duten gaiak lotuak.

Genero-irizpideen araberako datuak ere aztertu nahi izan ditugu, bai itzultzaileei,

bai idazleei dagokienez. Idazleen kasuan, grafikoetan oso argi ikusten da bilakaera nolakoa izan den. Garai batean, ia jatorrizko lan gehienak gizonen itzuliak ziren. Emakumezkoen presentzia oso-oso baxua zen, eta, bat-batean, grafikoak buelta ematen du, 2016tik aurrera hasi zirenean Katakarak eta beste hainbat argitaletxe ere saiakerak itzultzen. Hor ikusten da emakumeek presentzia hartzen dutela. Testu gehienak, bestalde, emakumeek sortuak dira. Arrazoietako bat da horietako asko pentsamendu feministari lotutako testuak direla. Eta itzultzaile emakumezkoek ere presentzia nabarmena hartzen dute. 2016tik aurrera esan daiteke emakumeak ibili direla gehienbat saiakera euskarara ekartzen.

Aztertu genuen beste faktore bat lan horien irisgarritasuna izan zen. Bilduma handien kasuan, esan bezala, lanak oso klasiakoak izan dira, kanonikoak; asko akademia mundukoak, unibertsitate-arloran bideratutako testuak. Bilduma horien sortzaileek ere esaten zuten asmo bat zela jakinduria hori guztia euskarara ekartzea, baina bazela liburutegiak edo ondarea betetzeko proiektu bat ere. Haiek ere kontziente ziren publikoarenaganako irisgarritasuna ez zela oso handia izango.

Bilduma horretatik kanpo, argitaletxeen kasuan, kontrakoa: nik uste dut edukiak berak egin dituela erakargarri, eta hutsune bat betetzeko ekarri dituztela lan horiek euskarara, eta, hein batean, gizarteak eskatzen zuen gauza bati erantzunez. Irisgarritasuna handia izan da, eta nik uste dut horregatik nabaritu dela azken urteetan saiakera asko itzultzen dela, eta ematen du inoiz baino saiakera gehiago ekarri dela euskarara, baina

zenbakietan ezetz ikusi dugu. Irisgarritasun horrek eman du pertzepzio hori.

DANELE: Oso ondo. Azaldu duzun guztiarekin eta azterlana irakurrita, deigarri iruditu zitzaidan, nolabait, bi aroen arteko desberdintasunak edo puntu komunak zeintzuk izan zitezkeen. Horren haritik, Maialen eta Amaia, zuek biok bigarren aro horretan ibili zarete gehiago. Batetik, Amaia, zuk Katakrakekin publikatu dituzu Federiciren itzulpenak eta Estesena, eta, Maialen, zuk Eskafandra bilduman eta Lisipe bilduman. Jakin nahiko nuke zer iritzi daukazuen bilduma horiei buruz, zer ekarpen egiten duten zuen ustez. Baina baita ere jakin nahi nuke Klasikoak bezalako bilduma bat horren batean bukatzeak... Badirudi bata bukatzen dela eta bestea hasten dela, baina ez daukate helburu berdin-berdinak, agian. Bi gauza horiei buruz hitz egin nahi nuke: bataren ekarpena eta beste horren balorazio bat.

MAIALEN: Niri iruditzen zait sorgin-gurpil moduko bat dela. Batetik, badaude eragile batzuk eta argitaletxe batzuk oso adi egon direnak, gizartean egon daitekeen egarri hori detektatu eta bazka hori emateko. Bestetik, berriz, alderantziz; erantzuna ere oso ondo eman dio publikoak. Ez daukat datu kuantitatiborik alde horretatik, baina... Iruditzen zait eragile batzuk sekulako lana egiten ari direla, denbora eta lana eta kapital humanoa sartzan, eta kapital ekonomikoa ere bai, ahal duenak. Zehazki pentsamendu feministaren inguruko bilduma hauek sortu izana segur aski ez da kasualitatea izan. Mugimendu feminista aspaldi-aspalditik dago hor, eta bere goraldiak eta beheraldiak eduki ditu, batez ere oihartzun aldetik, esango

nuke. Orain, jendeak badauka pentsamendu edo teoria feministarako gose bat. Gero, praktikarekin ez dakit zer egiten dugun, baina badago teoriarako gose bat, eta ez dut uste kasualitatea denik bilduma horiek orain sortu izana, eta, gainera, nik uste dut harrera polita eduki dutela.

AMAIA: Bai, nik uste dut hor badagoela argitaletxeen partetik gizartean eraldatzeko nahi hori, eta eztabaida hori elikatzeko nahi bat. Eta Maialenek aipatu duena: kapital humanoa eta kapital ekonomikoa. Niri iruditzen zait klasikoen bilduma horiek –ezjakintasunetik, baina badakit BBV eta Deustu tartean daudela– ziurrenik izan duten babes ekonomikoa ez dela inondik ere oraingo argitaletxeek daukatena, eta uste dut hori ere nabarmentzeko alde bat dela. Aipatu du Olatzek zer desberdintasun dagoen generoaren ikuspegitik, baina nik uste dut alderdi ekonomikoa ere nabarmentzeko dela. Azkenean, lehenengo aro horretan ondare bat sortzea zen asmoa, eta, ondare hori sortzeko, diru bat jarri zuten eragile batzuek, eta pentsatzen dut –pentsatu nahi dut– itzultzaileek ere lan-baldintza duinetan lan egin zutela, eta argitaletxeek ere bai, eta etekin ekonomiko bat egon zela hor. Bigarren aro honetan, ordea, iruditzen zait parte handi batean militantziazatik ere abiatzen dela, beste baldintza ekonomiko batzuetan, bai argitaletxeak, bai itzultzaileak eta bai horren inguruko beste eragile batzuk, izan diseinatzailea, izan maketatzailea... Ez dut uste baldintza beretan itzultzen ari garenik klasikoen bilduma horiek eta orain itzultzen ari garena. Eta uste dut aro honetan gizar-

teak dituen beharrekin gehiago egiten duela bat argitaratzen den horrek.

DANELE: Eta ikusten duzue nik aipatzen nuen hori beste modu batera egin zitekeenik? Adibidez, Literatura Unibertsala bezalako bilduma batek epe luzeko helburu bat du, ezta? Aro honetako itzulpen asko gaur-gaurko gai bati buruzkoak dira, eta ondo, baina batzuetan itzultzaileak eta gaur egun idazten ari den jende askok lehenagoko lan horietara ere jotzen du, eta, askotan, ez dauke euskaraz. Nolabait, arnasa luzeagoko edo epe luzera begirako horrelako bilduma bat ez egotea... Nola ikusten duzue hori?

AMAIA: Nik uste dut garrantzitsua dela hori ere izatea. Azken batean, guk orain irakurtzen dugun hori aurretik egindako horretan oinarritzen da. Nik, esate batera, Federiciren lehenengo liburua itzuli nuenean –marxismoaren parte baten errebisioa egiten du–, niretzat oso baliagarria izan zen Klasi-koen corpusa kontsultatu ahal izatea, badaudelako Marxen lanak itzulita. Nire kasuan, alderdi terminologikotik, baina beste kasu batzuetan edukiaren aldetik izango da. Itzulita dagoena beti izango da baliagarria, batentzat ez bada bestearentzat. Esan duzun bezala, epe luze horretan erabilgarria da, eta ondo egongo litzateke horrekin jarraitzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta. Eta beste liburu asko itzultzea ere bai, ezta? Besteak gehiago erantzuten die, zuk esan duzun moduan, momentuko beharrei eta momentuan gizartean askatzen ari garen korapilo horiei nondik heldu izateko. Nik uste dut momentu honetan hori oso beharrezkoa dela.

DANELE: Bai, nik uste dut hain justu ere errebisio bat egin daitekeela orain arte izan den bilduma horri buruz, baina niri deigarria iruditzen zait horrela bukatu izana. Bukatu zen, eta ez dago horri buruzko hausnarketarik.

OLATZ: Egia da bilduma horretan jasotzen diren lan batzuek badutela gaurkotasuna, baina ez dakit asko zabaldu ote diren. Nik ere, lan hau egin arte, oso gaintetik ezagutzen nuen bilduma, baina, behin hasita, eta ikusita zer lan jasotzen diren... Lan oso interesgarriak jasotzen dira, eta bada ondare bat, eta erabilgarria, publikoaren arabera eta interesen arabera. Egia da errebisio bat egitea interesgarria izango litzatekeela. Guk, adibidez, Gaseniren azterketa erabili dugu aurrekari bezala, eta hori EIZIEk eskatuta sortu zen, aztertzeko Literatura Unibertsala bilduman zer-nolako joerak izan ziren, eta zehazteko hurrengo urteetan zer ildo jarraitu behar zen, bai genero ikuspegitik, bai zer-nolako testu motak behar ziren eta abar. Interesgarria izan liteke irakurketa bat egitea eta ikustea orain arte bilduma handi-handi hauek zer ekarri duten euskarara, zer landu den, eta hortik bide bat irekitzea.

DANELE: Egia da, bestalde, bilduma hori oso eskuragarri dagoela. Testu guztiak daude aurkibide batean, eta jaits daitezke Worden, PDFn...

MAIALEN: Ez dakit jendeak badakien zenbat lan dagoen hor. Itzultzaileok ere uste dut harritu egiten garela batzuetan. Autore bat itzultzen hasi, erreferentziaren baten bila joan, eta «hara, euskaratuta dago». Ikargarria da zenbat gauza dauden. Honekin

lotuta, gauza bat aipatu nahiko nuke, gremiokoen artean askotan komentatzen den gauza bat: testu horiek hor daude, baina batzuk 1980ko hamarkadan edo 1990ekoan euskaratuta daude. Ez litzateke beharrik egongo, adibidez, eguneratzeko? Badakigu euskararen estandarizazioa zenbat aurreratu den denbora gutxian. Eta ez hori bakarrik. Egun, euskaraz idazteko eta euskarara itzultzeko estrategietan eta idazmoldeetan ere ari gara aurrerapausoak ematen, ezta? Garai hartan oso maisuki itzuli ziren liburu batzuk, eta sekulako merituarekin gainera, askoz baliabide gutxiagorekin, baina egia da batzuetan nabaritzen dela eguneratzeko behar hori. Adibidez, Literatura Unibertsaleko Urrezko Bibliotekarekin egin den bezala. Ez dakit, baina, beharbada, baliabide ez askorekin posible litzateke.

DANELE: Adibide zehatzetara pasatuko gara orain, nahi baduzue. Jakin nahi nuke ea zuen bion itzulpen-lanbideetan –*Berrian* eta *Elhuyarren*–, egunerokoan lantzen dituzuen testu-motek eraginik izan ote duten saiakera itzultzen hasi zaretenean; eragin onik, txarrik...

AMAIA: Nik *Elhuyarren* egiten dut lan, baina batez ere hiztegi terminologikoetan nabil lanean. Badauka eragina, eta alde bietara: bulegoko lanak eragina dauka etxeokan, eta etxeokak eragina dauka bulegokan. Baina itzulpenetan oso gutxi nabil. Nik, saiakeralan bat hartzen dudanean, lehenengo –lehenengo eta amaieran– terminologiari begiratzeko diot, terminologia finkatzeko. Horrek lan horretan zer kontzeptu landuko diren jakiten laguntzen dit, eta neure burua kokatzen. Hortik abiatzen naiz, egia esan. Jada

zalantza batzuk argitu ditudanean, ahaztu egiten dut hori, finkatuta dago, baina gero bukaeran, azkeneko errebisioetan, beti etortzen dira zalantza terminologikoak: «Hau, agian, beste modu batean egin behar nuen». Horrekin badaukat halako obsesio bat. Baina, bestelakoan ere, badauka eragina, zeren, azkenean, euskararekin ari baitzara egunerolanean, bai bulego-orduetan, bai etxean, itzulpenarekin. Niri sortzen zaizkidan zalantzak –terminologikoak eta lexiko arruntarekin zerikusia dutenak– gero bulegora ere iristen dira, hiztegian ez ditudalako aurkitu, edo beste adiera bat bururatu zaidalako, eta erantsi behar delako sarreraren batean. Niretzat, nolana ere, oso desberdina da lantokirako itzultzen dudana, edo etxerako itzultzen dudana. Askoz libreago aritzen naiz etxeko lan horretan.

MAIALEN: Ni *Berriako* euskara taldeko kidea naiz. Batez ere zuzentzen aritzen naiz, itzultzen dexentez gutxiago, baina hizkuntza laguntzaile-edo ere aritzen gara, bai taldeki-deon artean eta bai kazetariei dudak argitu nahian. Nire kasuan, egunkari jeneralista batean lan egiteak esan nahi du edozein tokitako albiste eta kontuak agertzen direla, hangoak eta hemengoak, eta askotariko gaietakoak. Orduan, ahalik eta gehien jakin behar dugu ahalik eta gauza gehienei buruz, ganbara betea eduki behar dugu. Ganbara betetzeari dagokionez, egunkari batean oso-oso modu samurrean sartzen zaizkizu gauzak, arian-arian, eta horrek asko laguntzen dit. Uste dut konturatzen naizen baino gehiago lagundu izan didala itzultzeko garaian. Bestalde, hizkuntza da gure lantresna, euskara partikularki, eta, gainera,

egunkari nazional bat izanda, askotariko estiloak ez ezik, askotariko koloretako euskarak lantzen ditugu. Eta alde horretatik ere itzultzaileen eta zuzentzaileen lanerako oso -oso baliagarria da. Eta zer esanik ez azkena aipatu dudan lan hori, zeren, hizkuntza-laguntzaile aritzen zarenean, bekadun bati esplikatuta behar diozunean hau zergatik den horrela edo zergatik iruditzen zaizun dela horrela, asko ikasten baituzu. Eta alderantziz ere bai, noski, zerorrek duda handi bat daukazunean. Talde-lanaren abantaila eta gauza eder guztiak ditu lan honek. Beti esaten dugu ikasteko fabrika bat dela, eta aitortzen dut lan honengatik eta lankideengatik ez balitz ziurrenik ez nintzatekeela ibiliko liburuak itzultzen eta hemen zuekin hitz egiten.

DANELE: Orain bi galdera elkartuko ditut, ados? Zuen itzultzaile-esperientziatik abiatzea nahi nahi nuke, eta galdera da zer estrategia, zer erronka nagusi dauden saiakera itzultzen duzuenean, beste testu-mota batzuen itzulpenekin konparatuta (edo ez). Zuk, adibidez, Amaia, Federiciren lau liburu itzuli dituzu, autore berarekin espezializatu zara ia, edo bide horretan. Maialen, zure kasuan, Adrienne Richen itzulpena saiakera bat da, baina tonu poetiko oso markatua du. Ezagutzen zenuen autorea, lehenago haren poema-antologia bat itzuli zenuen. Beraz, nahi nuke galdera nagusi horri erantzutea; alegia, zeintzuk diren erronkak saiakera itzultzerakoan, ea beste generoekin konparatuta oso ezberdinak diren edo ez, eta, bigarrenik, zehazki zuen esperientzian zeintzuk izan diren buruhauste gehien eragin dizkizueten auziak.

AMAIA: Ezin dut konparatu askorik, ezpada zientziaren eta teknologiaren alorreko itzulpenekin. Alegia, nik saiakera itzuli dut, ez dut itzuli ez poesiarik, ez fikziorik, eta, orduan, niretzat saiakera itzultzeko inportanteena da aurretik gai horri buruz dakizuna eta irakurri duzuna, terminologiarekin lotuta. Zer terminologia erabiltzen den *Berrian*, *Argian*... eta aurretik itzuli diren saiakera-lanetan. Jakin egin behar duzu zer dagoen inguruan, gero zeurera ekartzeko. Adibidez, orain, Federiciren azkeneko liburu honetan, genero-kontuak aztertzen ditu, eta Judith Butlerren teoriaren irakurketa bat egiten du. Orduan, dudarik gabe, euskarara ekarrita dagoenari begiratu behar diot, *Genero nahasmenduari*. Niretzat, terminologia bateratzea bada erronka bat. Ez bakarrik nire izenarekin argitaratuko den liburu horretan, ezpada itzultzen ari garen horretan; denok bide beretik itzultzea eta ez sortzea horrelako dispersio terminologiko bat, gero eztabaidak eta hausnarketak oztopatuko dituen. Niretzat hori oso inportantea da, eta horretan saiatzen naiz. Federiciren lehenengo lana bukatzen ari nintzenez, Eskafandra bilduman *Caliban eta sorgina* argitaratu behar zuten, eta pentsatu nuen komeni zela terminologia bera erabiltzea, eta pasatu ziguten maketa, begiratu ahal izateko eta bateratu ahal izateko terminologia hori. Eta, lehen esan dudan moduan, aurretik irakurtzea paretik pasatzen den guztia; baina, beno, interes propioagatik irakurtzen duzu, ez itzulpenari begira. Feminismoaren alorrean interesa duzulako irakurtzen duzu, eta feminismoaren adar batzuetan. Nire kasuan, Federicik esaten dituen horietan badaukat interesa, eta ezagutzen nuen diskur-

tso hori, nola eraikita dagoen edo nola ari garen eraikitzen euskaraz. Niretzat hori da inportantea. Ez dakit horrekin galdera bati edo biri erantzun diedan.

DANELE: Biei, esango nuke. Oso ondo uzartu duzu erantzuna.

MAIALEN: Guztiz bat nator zurekin, Amaia. Bateratzearena ikaragarritzko desafioa da, baina egin beharreko gauza bat. Nik ere hor jarriko nuke azpimarra. Gainerakoan, ez dut uste berez-berez generoen artean halako diferentziarik dagoenik itzultzaile baten prestalanean. Hemen zaudeten askok edo gehienok badakizue: azken batean, literaturan ere, adibidez, egokitu ahal zaizu Zeelanda Berriko floraren terminologia guretzat guztiz arrotza edo XVII. mendeko ez dakit zer jantziri buruzko pasarte bat, eta sekulako problemak eduki ditzakezu. Eta alderantziz: gerta liteke saiakera batean ere, baina uste baino samurrago joan daiteke. Orduan, alde horretatik, zuk esan duzun bezala, kontua da ahalik eta gehien dokumentatzea eta ganbara ondo beteta edukitzea.

Zure bigarren galderari erantzunez, Adrienne Richen kasuan –haren saiakera bat itzultzea aurretik poesia itzuli eta gero–, argi dago lagungarria dela. Esan nahi dut: batetik, oso irakurria izatea autorea, haren poesia, edo artikulua edo dena delakoa. Gero, haren poema batzuk itzultzean, badakizue zer den: sartzan zara autorearen barneraino, eta ulertzen hasten zara, edo zuk ulertu uste duzu autorea, eta gero, jakina, jada saiakerara iristen zara, eta esaten duzu: «Badakit zergatik jarri duen hori hor, eta ez hor». Zuk sinestu egiten duzu, noski, eta batzuetan segur aski asmatu ere bai.

DANELE: Pixkanaka amaitzen joan beharko dugu. Olatzen lanaren bukaerako hausnarketa bat ekarriko dut berriro. Begiratu diegu iraganari, baina, pixka bat etorkizunera begira jarriz, honela dio:

«Esan genezake, beraz, saiakeraren itzulpenean bilakaera bat gertatu dela kopuruan ez ezik edukian ere. Zebakitan haziz joan da, hasieran bildumekin, gerora argitaletxeekin –argitaletxeen kopuruen barruan–. Horiek horrela, argitaletxeen eskutik dibertsitate handiagoa lortu da, eta areagotu egin da irakurlearenganako irisgarritasuna. Ikusteke dago datozen urteetan ere bide bertusitik jarraituko duen».

Galdera bat egingo dizuet horren harira. Zer ikusten duzuen etorkizunari begira, zer desio zenuketen, zer beldur duzuen, zer arrisku, zer aukera ikusten duzuen. Goizean zientzia-fikzioari buruzko mahainguru bat egon da hemen, eta Arrate Hidakok esaten zuen ikusita zer zientzia-fikzio gutxi egin den euskaraz berak hor aukerak ikusten dituela; ez duela ikusten hutsunea, baizik eta, hain justu ere, aukera. Eraikitzeke dagoen horrek aukeraren ideia ematen diola. Zuei ere, galdera: zer ikusten duzuen orain etorkizun horri erreparatzen diozuenean?

OLATZ: Nik uste dut mantentzen dela joera. 2019tik haratago, azken bi urte hauetan ildo beretik doala uste dut. Argitaletxeak eta hor atzean dauden itzultzaile, editore eta lantaldeak esfortzu handia egiten ari dira, eta iruditzen zait oso puntu interesgarri batean gaudela. Une honetan, jende askok espero zituen testuak ari dira ekartzen euskarara, edo, areago, behar-beharrezkoak direnak. Feminismotik ekarri diren testu

guztiak, adibideez. Bazegoen behar bat teorizazioa euskaratik egiteko, zeren, askotan, orain arte, erdaretara jo behar izan baitugu. Feminismoa euskaratik egin nahi dugu, eta horretarako baliabideak eta tresnak behar ditugu. Eta, momentu honetan, ari gara jasotzen baliabide horiek guztiak. Momentu garrantzitsua da, eta eskertzekoa; gizarteak berak eta irakurleok. Nire kasuan, adibidez –gaztea naiz–, orain euskaratu diren lan batzuk bere garaian erdaraz irakurri nituen, ez zeudelako euskaraz. Orain, belaunaldi berriek ere teoria hori guztia, edo zati bat, euskaraz izango dute.

Oraindik ere badago zer sakondu. Eta feminismotik haratago ere bide asko daude esploratzeko, saiakeraren munduan. Iruditzen zaigu hemen asko ekarri dela, «131 lan» esaten dugu, eta asko dira, baina hasten zara begiratzen eta oso portzentaje txikia da. Uste dut aukera asko daudela eta bide polit batetik goazela. Arriskuak... Ba ez dakit zer arrisku etor litezkeen, baina, bidean asko dagoenean egiteko, aukerak ere askotarikoak dira.

AMAIA: Bai, nik uste dut arriskua dela argitaletxeen munduak gaitasuna eduki behar dutela horri eusteko: liburu bat itzultzeari, argitaratzeari, plazan jartzeari eta saltzeari, eta iruditzen zait sistema hori nahiko ahula dela, eta jende askoren borondatearen

menpe ere badagoela. Indartzeko beharra ikusten dut, nola edo hala; izan ere, gauzak horrela egiten direnean, desgaste handia ere ekar dezake. Hori sendotzeko beharra ikusten dut, eta arrisku bat ere bai. Bestela, beharra, saiakera itzultzeko beharra –ia-ia zoritxarrez, esango dut–, badago. Hainbeste gauza daude konpontzeko, eta hainbeste zera daude hausnartzeko eta eztabaidatzeko eta adosteko eta bide horretan jarraitzeko, hori nahi beste egongo baita. Orduan, arrisku hori uste dut presente eduki behar dugula, eta, ahal den neurrian behintzat, sistema hori indartzen saiatu behar dugula.

MAIALEN: Guztiz bat nator. Nik ere uste dut jende baten borondatearen menpe daudela. Badaudela hor zutabe batzuk, oso indartsuak, baina era berean ez daudela batere tinko finkatuak, baliabide faltagatik; eta, haize-boladatxo bat etorri eta bat botatzen badu, gainera, gero eraikin osoa ere kolokan jartzen da. Hori indartu beharko litzateke. Eta zer nahi nukeen? Bide honetan segitzea. Eta aniztasuna. Orain oso modan dago hitz hori, eta pixka bat hutsala da, baina gaiak zabaltzen jarraitzea nahi nuke. Orain, gai batzuen inguruan asko ari gara itzultzen, baina beste batzuk aparteago uzten ditugu, eta milaka kontu daude ikaragarri interesgarriak. Nik uste dut bide horretan sakontzen jarraitzea oso polita litzatekeela.

Resumen

El 25 de septiembre de 2021, las traductoras Amaia Astobiza, Maialen Berasategi y Olatz Esteban participaron en la mesa redonda «La traducción de ensayo», moderada por Danele Sarriugarte y organizada por Literatura y EIZIE. En este número de *Senex* recogemos un resumen de sus aportaciones.

Résumé

Le 25 septembre 2021, Amaia Astobiza, Maialen Berasategi et Olatz Esteban ont participé au débat sur la traduction des essais, sous la direction de Danele Sarriugarte et organisé par Literatura et EIZIE. Nous rapportons ici les propos de ce débat.

Abstract

On September 25, 2021, Amaia Astobiza, Maialen Berasategi and Olatz Esteban took part in a talk entitled “Translating literary essays.” The talk was moderated by Danele Sarriugarte, and organized by Literatura and EIZIE. We report their reflections in these pages.